


# LA TANA DEL LUPO

## ABRUZZOETATIK "GRAVEL" TXIRRINDUAZ



Mapa: Italia erdialdea eta ibilbideko bederatzi etapak

2023ko Uztailaren 9a da, igandea, egunetik 6:30ak dira baina dagoeneko sargori dago. Nire txirrindukide Iñaki eta biak Fiumicinoko hotel merke eta ilun baten atarian gaude, 5 bat kilometrotara dagoen. Enromako aireportu ofizialera eramango gaituen lau garren taxiaren zain. Hegazkina galteko arriskua DEFCON 2 alarma egoerara pasa da. Laugarraren taxi? Galdetuko du irakurleak. Bai, laugarrrena.

Atzo, Fiumicinoko paisaia sam ingarri eta distopikoan, estu eta lamia, gaueko 22:00etan lortu genituen hegazkinen bizi-kletak eraman ahal izateko kartoitzko kaxak, "in the middle of

"nowhere" aurkitzen den. Kiro-hipermerkatu batetako langileen dohaintzari esker, benetako mirakulua. Komtua da, horren kaxa ederrak zirela, ezen ez direla sartzen, XXXL tamainako furgoneta-taxiak eskatu arren.

Laugarraren hau "più grandi" izango zela esan ziguten, eta "quindici minuti" itxaroteko, baina ez ginen asko fio. Bitartean, erabat pipertu eta etsi aurretek, etorkizunerako geratuko zen gure azken 10 eguneen kronika idatzea bururatu zitzaidan.

### TESTUETAARGAZKIAK



Iñaki Etxabe Iriondo  
(Egoitz, 1999)

Mendizalea, alpinista, eskalatzailea, trail konkurrikaria, "jai-alai" zozetako ohi eta, noldik, txirrindularia. Bike packing munduan ikoa, hainbat bidaia interesarri egin ditu: Ipar Maldoko lur mutura edo North Cape, Canada eta EEBBak, Mendebaldeko hiriburuak edo hainbat ibilbide parnituak, Euskal Herriaren eta Pirini ostan.



Iban Serrano Lasa  
(Egoitz, 1970)

Mendizale eta birkindu zalea. Hainbat bidaia txirrinduzta eta zaldutxoekin eginak. Euskal Herriaren, Espainiar, Frantziar, EEBBeko mendebaldean, India eta Nepalen. Oso treheba ez den arren, manaztea ere gustatzen zio.

## AURKEZPENA

"Gravel" txirinduaren modaren olatua hartu eta Italiako erdialdetik eta Abruzzo mendietatik zehar itzulibat egin dugun 53 urteko bi "gazte" gara (Iñaki, lehen aurkezturiko laguna, eta ni, Ibon; urte askotarako).

Erromen hasi eta bertan bukatu genuen itzulia (Riumicinon, zehazki). Dena den, pasarterik alpagarriena Abruzzo eskualdetik zehar La tana del lupo edo Osoaren babeslekua izenaz bataiatu zen mendi-bizikleta itzulia izan zen.

## Mendirik garaienek 3000 metro inguru dituzte eta natura ingurune paregabea da; eskualdeak fauna eta flora endemiko berezia du

Abruzzo mendiak Italia iparraldetik hegoaldera zeharkatzen duen Apenino mendilerroaren erdigunean kokatzen dira. Mendirik garaienek 3000 metro inguru dituzte (Corno Grande, 2912m) eta natura ingurune paregabea da; fauna eta flora endemiko berezia du eskualdeak. Hainbat parke nazionalen kokagune ere badu.

Lurralde interesgarri hori Italia erdialdean kokatuta egon arren, autoz Erronatik ordu eta erdira, historikoki eta kulturalki Italia hegoaldeari egoritzenten zaio. Mendigune ez ezaguna da, isolatua, ekonomikoki baztertua. Baino, hala ere, edo arrazoi horregatik berberagatik, erakarganitasun bereziz jantzia.

## ERRONKA

Abruzzoetako Dukea zen Luigi Amadeo esploratzalearen XIX. mendeko balentria bat izan ez zen arren, ez pentsa honen erraza izan zenik bizitzaren udazkenean sarturik gauzen bi lagunontzako bidaia hau antolatu eta burutzea.

Alde batetik, gutxienerako egoera fisikoa eskatzen duen ibilbidea izan zen, eta guretzako ez da honen erraza sasoikoa mantentzea.

Bestetik, gure adinarekin, sakelako telefonoko teknologia bermietara eta digitalizazio etengabera egokitu behar izana ez da gure indarguneetariko bat; eta gaur egun, guretzako tamalez, bidaiatzeko tresna ia "ezinbesteko" bihurtuarazi ditute. Horretaz gain, ezinegon horri presbiziari lotutako bion ikusmen arazoak gehitu behar zaizkio.

Aje biologiko hauetaz guztietaz gain, gure adin tarteko askok jasaten dugun egungo gizarteko beste madarizazio bat kudeatu beharra suertatu zitzagun: denbora falta. Hainbat eta hainbat lotura eta konpromiso, lanorduan eta egutegia, familia, bikotekidea, seme alabak,... ez da ez erraza opor egun apur batzuk antolatzea eta asmo handiegiaik ez izatea.

Horregatik, bidaia arazo handirik gabe egin izana izanren lehiaketa ezohiko baten ondorioa izan zela pentsa dezakegu (azken une kritiko horretara heldu aurretik, noski).



Ibon, Maiellako parke nazionalak

## IBILBIDEA

Has dezagun bidaia. Guztira 790 km inguru egingenituen amen, La tana del lupo ibilbideari dagozkiean kilometroak guzti gorabehera 390 km izan ziren. Aipatu beharra dago ibilbidea ez dagoela indiaz ere ez in situ markatua, eta, ondorioz, interneteko tracks eta GPSaren laguntza ezinbestekoa dela bertatik bertara jarraitzeko.

Kontakizunari dagoldion ez, etapaz etapa azaltzea baino nahiago izan dugu guretzako highlight nagusienak izan direnak deskribatzea. Jarraituriko ibilbidea eta etapen ezaguari nagusiek zehatzeko honako mapa hau eta taula gehitu ditugu, La tana dell'Uomo dagozkiean etapak nabarmenduz.

Mendizaletasunaz haratago, etapa erakargarrienak nabarmen zeaz gain, lehenik eta behin Errona hiria tximinduan bi aldiz zeharkatu izana azpimarratu nahi izan dugu. Biotako inor aurretek bertan izan barrik geunden, eta gure asmoa berau ahal bezain lester igarotzea zen, aldez aurretek ez



13/6/22

Itali, Campo Imperatoreko goi lautadak eta mendiak Strade Bianche baxuetan

baitzun ezer iradokitzen hiri ezezagun honek (bueno, nola ez, "calamaria la romana" zizka-mizka ez badal). Edozelan, "Città Ettema" diotena gurutzatzean dezente hamitu gintuen zahar xamarraak ziruditen hainbat monumentu bitxi aurkitu izanak. Bilboko "Puppy"-rekin konpara daitekeen ezer ez, noski, baina nolabaiteko meritura aitortu beharko diegu garai bateko enromatanei.

Txantxa kaxkarrak hori alde batera utzi eta Enromatik inten bezain laster ekialdera abiatu ginen, Pescara doan "Via Tiburtina" bidea jarraituz. Lazio eskualdeko lautada jende-sua Tivoliaino hedatzen da. Bertatik altuera hartzen hasi eta baso eta mendi itxiz osatutako lurraldetako bakartigoetan barneratu ginen, ekaitzpean blai-blai eginak, Abruzzo-en bihotzera heldu arte. Hurrengo eguerdian Rocca di Cambio herriokara heldu ginen, eta han egin genuen bat La tana del lupone lomatza-rekin.

Ordua arte errepidez eginko ibilbidea izan zen, baina, gune horretatik aurrera, Strade Bianche izendaturiko bide-xkan zehar, 3. mailako eta trafiko eskaseko errepide asfaltatuak tartekatzen hasi ginen. Strade Bianche delakoa asfaltatu gabeko kareharri txintxarriz eratutako bidea da, baina, edozein bide zidor tamalgarri-rekin alderatu daiteke. Bide horietan zehar, ibilbidearen %95 inguru bizikletaz egin daiteke oro har; eta hozte eziktu ederretatik joan arren, es-

fortzu fisiko handia eskatzen dute, batik bat zakuto astunak generatuztala kontuan izanik.

Hurrela bada, behin La tana del lupon murgildurik, erlojuaren orratzen zentzuaren abiabtu ginen gure "giro abruzzese" egitera, paisaia izugari ederrak eta zenbait parke nazional igaroz (Gran Sasso, Maiella, Abruzzo eta Lazio e Molise). Tuntzetan, leher eginik, baina izpiritua asebeterik eta bihotza puztunik, hemi txikietan oztatu hartzen genuen, bertako gutizia enologiko eta gastronomikoak dastatzeko aukera paregabea aprobaezatuz. Dena den, sukaldaritzaz italiar entzutetsuaren baitan, pizza eta pasta gehiegi dagoela iruditu zitzagun; ensalada freskoak, zopak eta arrautza frijituak faltan bota genitu en. Garagardo eta Abruzzoetako ardoari buruz berriak, kexarik ez.

**Baso estuek eta paisaiaren berdeak  
Ibilbidearen %95 inguru bizikletaz egin  
liluratu egin gintuzten, pagadiak,  
pinuak, lizarra, izeiak, gaztainondoak,  
astigarrak, haritzak, elorriak, pikondoak  
eta beste hainbat zuhaitzek esaterako**

Handik bost egunetara, behin bira bukatuta, hegoaldetik itzuli ginen Enromara. Apeninoak atzean utzi bitartean, be-

netan ikusgarria egin zitzagun Monti Sibruini izeneko parke naturala. Irunabarrean, Filettinora bidean igotako Serra Sant'Antonio portua ere orolinenean geratuko zaigu, zuen edertasun eta orografia deskribatzinagatik.

## ABRUZZOAK

Abruzzoaren paisaia labur deskribatu beharra bailego, zerbait ezaugari alpatu beharko genituzke.

Alde batetik, eraketa orografiko mailakatua. Sanrian, 400 metroko altueran hasi eta 1600 metroko altuera bitartean ibiltzen ginen. Askotan simplifikatuz, esango genuke 400 metroko altuera igo edo jaitsi orduko goi lautada edo "plateau" izugarrizko topo egiten genuela. Mastin arrazako artzain txakur itzel eta mésfidatuez zaintutako artaldeak nahiko ohiak ziren paisaia eurasiar bakarti erraldoi haietan.

Baso estuak eta paisaiaren berdeak ere illunatu egin gintzuetan. Orogenia eta altueraren araberako aniztasun handia aurkitu genuen, batik bat pagadiak, hainar, baita ere pinu, lizar, itzel, gaztainondo, astigar, haritz, elorri, pikondo eta beste hainbat zuhaitz eta zuhaitz mota ere. Adriatikoko magalerantz, oli-

bondoak eta mahastí sailak ere bazeuden; eskualdea moskatei mahats motaren jatorria omen da, eta Abruzzoetako ardo biziak duen sona, benetan merezitakoa dela esan dezakegu.

Fauna beriz, abera eta. Maiz gurutzatu ginen azeri, orkatza, orein eta basurde saldoekin. Hartz eta otsoen presentziagatik ere ezagunak dira Abruzzoak, guk ikusi ez genituen arren. Gaitz erdi.

## Hango naturaz gain, bertako jendeak ere hunkitu egin gintuen

Bestalde, haritzekoak egin zitzagun aipaturiko bakardadea, Erronkarriko horregintza egon arren. Ieusigenituen turista apurrik mendizaleak zirudite, eta bainuetxeengatik ezagunak diren herri gutxi batzuetan elkartzen ziren. Inguru haietako herriak jasaten ari diren biztanleriar en zahartze eta gutxitzearen lekuarena izan ginen. Pena handia ematen zuen, eldidaea ezinezkoa den patua balitz bezala. Dena den, ezin ukatu horrek dakinaren xarma, eraikuntzen arkitektura apalbaina sendo, eta adaptapetan eraikitako edota eskegitako eraikin ikusgarriak ere.



Iraldi, presbiterio lagun duala, Corno Grande mendian aiztan

Eta "abruzzese" herritarrei buruz zer esan? Italikoen hainbat estereotipo hautsiz, jende lasai eta apala surkitu genuen orokorean (gidayten izan ezik). Jarrera lasai hori nabarmen zuten eurengana Montferrateko Salvatoreren "pidgin" sasi-erromantzea zerabilten morroirengana zuzendu ginenean (-Bon giorno, noi due no parlammo italiano mai piano piano se arriva lontano. Prego, una questione...). Honela, hainbat ekarriketan bidez, eta hala nola, kultura mediterraneo beretza duten zenbait herritar jantzitako eta du in ezagutu genituen.

Historiaren ezagutza i zegokionez, Pedro Bereterra (Pietro Navarro, 1460-1528) erromatar "condotieroak" lurrade haitan egindiko gerra ezagun egiten zitzaitzien; bazeukaten nolabaiteko hemikontzientzia, eta bitxia zen maiz transmititzen ziguten

nostalgia historikoa. Izen ere, XIX. mendeko "riscoramento" edo Italia modernoen eraitsak ez omen zien gauza onik ekari hegoaldeko herritarrei. "Pizza" bat muturra okertzen bazitzaigun ere, Borboien aurreko enresuma zeukaten biziñigogoan.

Ezin uka beraz, hango naturak eta jendeak hunkitu egin gaituela, ezinbestean. Are gehiago, urteen poderioz geratzen zaigu nitorrean eta babesleku ideologiko bakarrenetako erromantizismoan oinarritzen dela kontuan izanik.

### ZENBAIT IRADOKIZUN

Lehenik, berriro gogorarazi La tana del lupo ez dela oraindik zorionez gentrifikatutako ibilbide ezaguna, beraz GPSa eta tracka eskuragamitzea ia derrigorrezkoa dela.



23/08/01

Bestalde, "gravel" motako txirrindua agian ez da egoldien. La tana del lupo sollik nahi bada egin, izan ere, Strade Biancheek eskatzen duen maila teknikorako gehiago egokitzen baita mendiko txirrindua. Dena den, "gravelak" guri independentzia polita eman digu. Erromatik hasita asfaltozko kilometro andanak nahiko erraz egiteko. Hala ere, izan kontuan errepide asfaltatuako bide bazterrak nahiko estuak direla, eta gitarri italianiak orokorrean ez daudela oihituak txirrindulariekin bidea partekatzen.

Ekipamenduari dagokionez, guk, bibakak egiteko, kanpin denda, lo zakua eta sukaldeko zenbait tramankulu eraman genituen, eta esan beharra dago, asko alferrik. Alde batetik, edozein herrian aurki daitekeelako ostatu egokia atseden hartzeko, eta bestetik, Italian ez delako horren erraza gaua bide bazterrean igarotzea.

Hegaldiari dagokionez, txirrinduaren garraioa ez da errazegia izan, leusia besterik ez dago zein egoeratan geunden artikulu hau idatzten ari nintzenean. Norbere gogoetarako utziko dugu azken 30 urteotan teknologia berrien hedapenak, azpiegitura emaldoien eraikuntzek eta garraio modu berrieikona sipatzen den "mugikortasuna" benetan erraztu ala zaiztu egin ote duten.

Oztoposak oztopo, bidaia benetan xarmagarria, aberasgarria eta aholkatzeko modukoa izan da. Biziak edo gabe,



Zenbait "kinto" abruzzese eta biok Atzean  
Grente mendikak (Abruzzo eta Dolomitak)



Iaki "Gravel" txirrinduan

edozein naturazale edo mendizale damutuaraziko ez duen ingurunea.

Badator taxi bat. Iñaki dio aurreko berbera dirudiela, DEF-CO N1?

ETAPA	EGUNA	NONDIK-NORA	LATANADELLUPO	DISTANZIA (KM)	STRADE BIANCHE (%)
1	2023/06/30	Fiumicino-Erroma		30	0
2	2023/07/01	Erroma-Cese		130	0
3	2023/07/02	Cese-Rocca di Cambio		40	0
		Rocca di Cambio-Preturo	X	40	60
4	2023/07/03	Preturo-Castel del Monte	X	70	70
5	2023/07/04	Castel del Monte-Popoli-Musellaro	X	80	60
6	2023/07/05	Musellaro-Villetta de Barrea	X	80	60
7	2023/07/06	Villetta de Barrea-Secinaro	X	80	40
8	2023/07/07	Secinaro-Rocca di Mezzo	X	40	70
		Rocca di Mezzo-Filettino		80	0
9	2023/07/08	Filettino-Erroma-Fiumicino		120	0

INFORMAZIO GEHIAGO



TRAKIA

